

Hitzaurrea. Migel Soroa: beti gizon eta kantxan jaun!

Gaian sartu baino lehen, eskerrak eman beharrean nago jn. doktore Ander Letamendia Loinaz adiskide onari, Migel Soroaren nor-izate aberatsari buruzko azterlan honi atariko hitz batzuk jartzeko aukera eskaini didalako.

Ander Letamendiak, egitekoa zuzen burutzeko, laguntza preziaezina izan du biografatuarena berarena; gizon argi eta adeitsua berau, egiazko adiskidantza dotorezia naturalez ondrazten duena.

Ander Letamendiak ederki erakutsia du lehendik ere nik jorratu nahi dudan eremuan mugitzen dakiena. Izenburuari (*Migel Soroa, beti gizon eta kantxan jaun*) bete-betea erantzuten baition biografiak Elduainen ditu lehen pausuak ematen, Soroaren jaiotetxean; eta, esku-pilotako txapeldun miretsi eta guziek onetsiaren ibiliak ibili ondoren, gipuzkoako herri bereko beste baserri batean ditu errendituko.

Behar besteko atentzioa eskaintzen dio Letamendiak nekazal-etxeari. Autoreak ekonomia eta gizarteak erakusten ditu Elduaingoak, non falta ez diren gurdien txilio negarti gogoetagarriekiko oroitzapenak. Ikastun kanpotarrik etorri izan da gurera kirrinka horietan ez bestetara.

Vitoriaren 1777ko testu batean, Julio-César Santoyo-k bere *Viajeros por Alava, Siglos XV a XVIII-n* jasoan, dator

Soro lanetako gurdien kirrinkak nonahi entzuten dira, Aste Santuko tronpetak iduri.

Atzerriko lurretan ginelako inpresioa areagotu egin zen Gipuzkoan zehar gindoazela: hots berexi batek harritzen eta txunditzen du bidaiaria, hartara ohitu artean. Nonahi (...) topa daitezkeen idi-gurdien kirrinka-hotsez ari naiz; hots lerratua eta sarkorra, batik bat arrats beheetan urrutitik entzunda inpresio bitxi triste eta abailtzalea eragiten baituena, behingoan haren kausa ez jakitean,

Gillermo Humbolt-en hitzak *Euskal Herrian zeharreko bidaiaren baten zirraborroak* liburuan.

Nekazal munduaz ari naizela ezin aipatu gabe utziko dut orduko osasun kezka ailegatzen digun kontratua, 1584. urtean Berastegiko eta Elduaingo Kontzejuko ordezkariak maisu zirujau batekin sinatua:

(...), joango delarik bera Berastegiko eta Elduaingo zeinahi etxetara eta Elduako auzora eta Leizarango bailarara, deitua den aldiro, odola ateratzera eta zauriak sendatzera edota kasuan kasuko beharretara; eta joango delarik arestiko Elduaingo lurrera hilerero-hileroko bizarra moztera edo bestelako premia denera; eta lau urte horietan ez du hutsik egingo maisu Juan horrek, (...).

Medikuntza, esan dezagun, *ofizialetik* noan *saludadore*a aipatzera, zeinaren berri sarritan eman baitzidaten nire aurreko zaharrek. Urteak dira Elduaingo Artxibategi Munizipaletik notatxo hau jaso nuela:

Saludador –año 1736–. Item. dio en data veinte reales de plata pagados al saludador el mes de agosto, por su salario ordinario y acostumbrado.

Saludadorearen hileko kobrantza, alegia, zilarrezko hogeireal.

Baserrian, Migel Soroaren esanera beti, *palankaria* aitatzten du Ander Letamendiak. Gaur egungo laztabin edo palanka bi-bat metro luzeko lanabes altzairuzkoa da, gehienbat harrobietako egitekoetan erabilia. Ez dut, ordea, ahaztuko *palankariak*, palankajaurtitzailleak, gure antzinako herri kirolean eta leienda mugarik gabeetan izandu duen garrantzia; esaterako, jentilen balentria izugarriak, Amezketako Otastarko mendiaren gailurretik jaurtitzen baitzuten barra, noraino?, eta Bedaio auzo tolosarreko lazku mendiraino.

Baserrian gure biografatuaren urteak familiako epelean dihoaz; hala ere, gertatuko dira anaia baten heriotza gerra zibilean eta aitarena ezbeharrean, zeinaren hileta emozioz emana dakarkigun Ander Letamendiak. Elduaingo eliza parrokiako organoan Migel Soroa jartzen zen denboran, bere amak –etxeokonde maratz eta fin, serora ere bazenak– kanpai-sokei tiraka jardungo zuen, auzoei hizkuntza argian mintzo. Eta honetara ezkerro, irudimena hegan dihoakit kanpai buruzko literatur aleetara:

Oh, vieja campana, vieja campana! –dio Gregorio Muxikak–. Tu que clamaste solicita por mi ascendencia dorada, tu que guiaste amable los primeros pasos de mi juventud, guarda el ultimo eco de tu voz ronca y débil para lanzarlo cuando me veas caminar por el lugar donde condujeron a tantos que lloraste y que no han de volver.

Ez zen, ordea, dena baserria izandu Soroaren haurtzaroan eta mutiletan. Migel, eta hau bete-betean deskribatzen du Letamendiak, herriko eskolara ohi dihoa eta etxeko pianoan ohi dabil. Laster hasiko da garai hartako organista eta konpositore ospetsu Eduardo Mokoroa-enera, eta eskusoinu jotzaile iaio bilakatuko da, zeinarekin alaituko dituen hainbat herritako jai-arratsak. Esan liteke musika zaletasun honetxek eraman zuela Migel Soroa frontoira, eta *inpernuko hauspoa* (eskusoinua) eta esku-pilota jokoa batera erabili zituela, emazte Mikaelak ondo-ondotik beti adore eta bihotz emanez, adiskide eta pilota-kronista Franzisko Ezkiagak eragin eta eskuhartze eraba-


kiorra eskainiz, eta bere seme Anttonengandik gerora jasotako bultzadak eta aholkuak ere ahaztu gabe.

Gure frontoietako kantxetan Migelen jarduera bikain eta eredugarrian zehar xuxenki garamatza Ander Letamendiaren lumak. Hitzaurrez ari natzaion liburua ez da ikerlan arina, tratatu sakona baizik biografatuaren nortasunarena. Arreta bereziki bere pilotari-bizitzan dago jarria, non sari handiak irabazi baitzituen, halanola (ezer nabarmentzekotan) 1954ko eskuz banakako *Txapeldun*, eta Txapeldun ere urte berean koadro motzetako jokoan Ogetari irabaztean. Eta pilotazale xume gisa badarik ere, bi partida horietan ikusle fortunatu nintzen.

Liburu honetako tituluetan bat azpimarratuenean, *Migelen eskuak* titulatu. Soroaren eskuak dira, Letamendiaren esanean: «pilota jo eta, aldi berean, akordeoia igurtzitakoak; kirolarekin negar eta musikarekin gozaldi egin dutenak...» Gai honi buruzko hainbat azterlan egindako profesionala den legera arituko da autorea luze-zabal liburuaren atal honetan.

Omenaldi baten kronika goiburupean, Tolosako herriak 1954ko urtarrilaren 15ean Migel Soroari, bere pilotaritza profesionalaren akaberan, eskainitako egun jatorraren memoria egiten du Ander Letamendiak. Kapitulu honetan jasotzen da Franzisko Ezkiaga tolosarrak, pilota jokoaren kronisten *maisua* –zeinari Letamendiak erakusten dion estimua eta begikotasuna– omenaldi honen gainean –hantxe nintzen neu ere zorionez– egin zuen azalpen luze eta gorazarrezkoa.

Migel Soroa, beti gizon eta kantxan jaun, Ander Letamendia Loinaz-ena, liburu ondo burutua da. Biografia bat da, eskutik eskura jasotako pasadizo xehe amoltsuz aberatsa, zeintzuek ikerlanaren zorrotzasunari ikararik eragiten ez dioten. Eta hauxe da positiboa eta funtsezkoa.



Hitzaurrea = Prólogo / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Migel Soroa: beti gizon eta kantxan jaun!* = *Miguel Soroa: señorío en la cancha* / Ander Letamendia Loinaz. - Tolosa : Tolosako Udala = Ayuntamiento de Tolosa, 1999. - [282] p. : il. ; 28 cm. - P. 19-23